

Roquefort gaztako bakterioen sexu jarduera

WWW.OHMYFOOD.FR



JATEN DITUGUN esneki gehienak bakterioei zor dizkiegu; haiei esker bihurtzen da esnea esneki. Ezagun da, bestalde, bakterio batzuek ugalketa sexuala dutela, eta beste batzuek asexuala.

PloS One aldizkarian berriki argitaratutako emandako artikulua arabera, Roquefort gaztaren sortzaile nagusiak, hots, *Penicillium roqueforti* bakterioak, sexu jarduera du. Bitxikeria hutsa dirudienak izugarritzko garrantzia izan dezake gaztaren hobekuntza bidean. Ugalketa asexuala duten bakterioen kasuan mutazioak, oso geldoak izateaz gain, ausazkoak ere badira, eta oster, ugalketa sexuala duten bakterioen kasuan mutazioak azkarrak eta askotan kontrolagarriak dira.

Frantzian, urtero, bi milioi tona Roquefort gazta ekoizten dira. Aktore nagusien ugalketa ohiturak ezagutzeak badu bere garrantzia. ■



Arrautza-oskolen hondakinak hortzak konpontzeko

Kolonbiako UN unibertsitateko Edgar Delgado Mejía irakaslearen arabera, arrautza-oskoletatik lortutako fosfatoak askoz ere kalitate hobeagoak dira egun merkatuan lortzen direnak baino. Ondorioz, hortzen konponketan oso emaitza onak eman ditzakete.

ttiki.com/47403

(Gaztelaniaz)

Curiosity-k aurrera jarraitzen du Marten

Curiosity robotak lanean jarraitzen du Martera ailegatuz geroztik. Otsaileko lehen astean, 1,6 zentimetroko diametroa eta 6,4 zentimetroko sakonerako zuloa egin eta horko materiala eskuratu du. Horren azterketak ondorio interesgarriak izango ditu ezbairik gabe.

ttiki.com/47404

(Gaztelaniaz)

Turistek egindako argazkiek badute balio zientifikoa

OPORRETARA joaten garenean oso ohikoa izaten da han eta hemen eta horri edo hari argazkiak ateratzea. Berriki, Londresko Imperial College-ko Tim Davis ikerlariak marrazo-baleari (*Rhinodon typus*) turistek egindako argazkien interes zientifikoa aztertu du.

Animalia hori topatzea ez da erraza, eta argazkiak eginak garrantzitsuak. Zientzialariek espedizio garestiak antolatu beharko lituzkete haren irudiak lortzeko; turistek utzitako materiala aztertu ondoren, Tim Davisek ondorioztatu du zientziarako oso informazio baliagarria atera daitekeela haietatik.

Gogoan izan, irakurle: zure hurrengo oporraldian zientziaren laguntzaile bilaka zaitezke. ■



WWW.CANCUNRESERVAS.COM



Pintura berezia aireko nitrogeno oxidoak kontrolatzeko

Hirietako kutsadura kaltegarrietakoa nitrogeno oxidoetatik datorkigu. Errekuntza-motor guztietan sortzen dira, baita elektrizitatea sortzeko erregaia darabilten zentraletan ere. Alemaniako ikerlari batzuen arabera, etxetako hormetan pintura bereziak erabiliz aireko nitrogeno oxido kantitatea murriztu daiteke.

ttiki.com/47405

(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16